

Plan Estrategikoa

2025-2028



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ZIENTZIA, UNIBERTSITATE ETA
BERRIKUNTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE CIENCIA,
UNIVERSIDADES E INNOVACIÓN

IKERBASQUE – Basque Foundation for Science



Txosten hau Creative Commons lizentziapean banatzen da (Aipamena).



Lana edonola ustiatzea baimentzen da, honen ondoriozko lanen sorkuntza barne, eta hauen banaketa ere baimenduta dago ezein murrizketarik gabe.

Zientzia mundua ulertzeko tresna bat baino askoz gehiago da; aurrerabidearen motorra da, erantzun amaigabeen iturria etorkizun hobea amesten dugunontzat. Testuinguru honetan, gure Plan Estrategikoa dokumentu bat baino gehiago da: asmo-adierazpen bat da, gure erabakitasuna islatzen duen ibilbide-orria, gizateriaren erronka handiei ezagutzaren, berrikuntzaren eta lankidetzaren bidez aurrera egiteko.

Horregatik, gure konpromisoa ez da bakarrik aurkikuntzak egitea, baizik eta horiek gizartean eragin esanguratsua eta positiboa izan dezaten bermatzea ere.

Plan honek gure ahaleginak Euskadiko eta mundu osoko beharrekin lerrokatu nahi ditu, diziplinen arteko lankidetzaren, iraunkortasuna eta inklusioa sustatuz.


Egin beharreko bidea erronka handia da, baina Ikerbasquen ideiak errealitate bihurtzeko, eta hauek etorkizuneko belaunaldiari inspirazio izango dien aldeko apustua egiten dugu.






AURKIBIDEA

- 01. Sarrera** Orr. 4-7
- 02. Planaren elaborazio-prozesua** Orr. 8-11
- 03. Kanpo analisia** Orr. 12-25
- 04. Barne analisia** Orr. 26-35
- 05. AMIA analisia** Orr. 36-39
- 06. 2028rako 10 erronka** Orr. 40-43
- 07. 2025-2025 Plan estrategikoa** Orr. 44-63
- 08. Aurrekontua** Orr. 64-67



1. SARRERA



Ikerbasque 2007an sortu zen Eusko Jaurlaritzak bultzatuta, Euskadiko ikerketa zientifikoaren garapena sustatzeko, bikaintasunezko ikertzaileak erakarriz eta Euskadiko talentu zientifikoa berreskuratuz.

Erronka hauei erantzuteko, gure jarduera bost plan estrategikok gidatu dute:



1

2007-2009 Plan Estrategikoak ikertzaile erakarpena sustatu zuen Ikerbasque fundazioaren iraunkortasuna bermatzeko. Halaber, bikaintasuneko 3 ikerketa-zentro (BERC) berri sortu ziren, eta lehendik zeuden beste oinarritzko ikerketarako 3 zentroak BERC programan integratu ziren.

2

2010-2013 Plan Estrategikoak Ikerbasque fundazioa sendotu zuen ikertzaile senior berriak erakarriz, eta Research Fellow deialdia jarri zen abian. Gainera, beste bikaintasuneko 3 BERC zentro berri sortu ziren.

2014-2017 Plan Estrategikoak ezinbesteko deialdiak mantentzea lortu zuen, muga ekonomiko sakonen testuinguruan. Horrez gain, Research Associate profila sortu zen Research Fellows programa finkatzeko.


3

2018-2021 Plan Estrategikoak estatuan talentua erakartzeko erreferente zientifiko gisa kokatu zuen Ikerbasque, ia 300 ikertzaile bikainekin. Gainera, Ikerbasquek sustatutako BERC zentroek estatuko erreferente bilakatu ziren oinarrizko ikerketan, bikaintasuneko finantzaketa lortuz.

4

2021-2024 Plan Estrategikoak Ikerbasqueren posizioa indartu zuen nazioarteko erreferente zientifiko gisa, goi-mailako 400 ikertzaileekin. Euskal Zientzia Sistemarentzat interes estrategikoko proiektuak ere bultzatu zituen Ikerbasquek: BasQ, IKUR, BIHAR Donosti, Linker,...

5



2. PLANAREN ELABORAZIO PROZESUA

Ikerbasqueren 2025 eta 2028 epealdirako Plan Estrategiko berria hausnarketa estrategikorako parte-hartze prozesu baten bidez garatu da, gure intereseko talde guztien lankidetzaz aktiboarekin. Ikuspegi honek haien beharrei eraginkortasunez erantzun nahi die, Euskal Zientzia Sistema osatzen duten eragileei arreta berezia eskainiz.



2024ko udara

Atariko fasea

- Hausnarketa estrategikoko interes-taldeen parte-hartze prozesuaren definizioa
- Beste erakunde zientifikoekin plan estrategikoen azterketa konparatiboa

2024ko Iraila-Azaroa

Analisia

- Kanpo analisia interes-taldeen partaidetzarekin
- Ikerbasque fundazioaren barne azterketa: autoebaluazioa, arriskuen analisia, errendimendu azterketa
- Gogoeta estrategikoa: Misioa, Ikuspegia, Balioak eta arrakastarako faktore kritikoak
- Helburu estrategikoen, jardura-ildoekin eta aginte-taula integralaren garapena



2024ko Abendua

Egiaztapena eta Onarpena

- 2025-2028 Plan Estrategikoaren zirriborroa
- Zirriborroa Batzorde Exekutiboan aurkeztu eta onartzea
- Batzorde Exekutiboaren eta Patronatuaren ekarpenen berrikuspena
- 2025-2028 Planaren behin-betiko idazketa
- Fundazioko Patronatuaren amaierako onarpena


2025-2028

Hedapena eta jarraipena

- 2021-2024 Plan Estrategikoa intereseko taldeei ezagutzera ematea
- Adierazleen jarraipena eta urteko ebaluazioa
- Lortutako emaitzen komunikazioa



3. KANPO ANALISIA





Ikerbasque fundazioaren 2025-2028 Plan Estrategikoa garatu ahal izateko, behar-beharrezkoa izan da ingurunea aztertzea eta Zientziaren joerak ezagutu eta ulertzea, bai Euskadin eta baita mundu mailan ere, Ikerbasque fundazioak datozen urteetan bete dezakeen eginkizunaz jabetzeko.

3.1. JOERA GLOBALAK

Aurrerapen zientifikoen eskutik erantzun egokiak eman ahal zaizkie gizarte, ekonomia zein ingurumen arloetan dituen erronkei. Horren harira, nahitaezkoa da aurrerapen zientifiko horren mundu-mailako joerak ezagutzea:

3.1.1. Gorabidean dauden ikerketa eta garapen arloak

Gaur egun ikerketa-esparru ugari badaude ere, jarraian garrantzia hartzen ari diren zenbait alor azpimarratzen dira, hauen potentzial zientifikoa edo pertsonen bizikalitatea hobetzeko duten gaitasuna dela eta::

- **Adimen Artifiziala (AI)** zientzia eraldatzen ari da, prozesuak azkartzeko eta arazo konplexuak ebazteko tresna aurreratuak eskainiz. Horrek aukera berriak zabaltzen ditu hainbat esparrutan, eta zientzialariei teknologia hau gabe gaindiezinak diren arazoei aurre egiteko aukera ematen die.
- **Teknologia kuantikoak** paradigma aldaketa bat suposatzen du, industria osoak eraldatzeko eta arazo globalei modu berritzaileetan aurre egiteko ahalmena baitu. Hala ere, teknologia honen garapenaren hasierako fasean gaude oraindik eta aurrerapen handiak behar dira honen ahalmen osoa lortzeko.
- **Medikuntza pertsonalizatuaren ikerketak** genetika, molekula, ingurumena eta bizimoduaren aldaketek pertsonen osasunean eta gaixotasunetan duten eragina identifikatzean eta ulertzean oinarritzen da. Ikuspegi honek paziente bakoitzaren ezaugarri berezietara egokitutako diagnostikoak, tratamenduak eta prebentzio estrategiak garatu nahi ditu, eraginkortasun klinikoa optimizatuz eta arriskuak murriztuz.
- **Energia berriztagarrien eta jasangarritasunaren ikerketak** estrategia eta teknologia ugari aztertzen ditu energia eta baliabide materialak modu garbi eta eraginkorrean ekoizteko, biltegitratzeko eta erabiltzeko, gure ingurumen-inpaktua murriztuz.
- **Materialen zientziak** propietate aurreratuak dituzten material berriak ikertzen eta garatzen ditu energia, osasuna, elektronika eta beste hainbat teknologiak hobetzeko. Funtsezkoa da produktu iraunkorragoak eta eraginkorragoak sortzea, mundu mailako erronkei aurre egiteko.
- **Diziplinarteko ikuspegiak** gero eta garrantzia handiagoa dute arlo zientifiko guztietan, bereziki mundu mailako erronka konplexuei aurre egiteko uztartzen dituzten ikerketetan.

3.1.2. Zientziaren munduko lidergoaren deszentralizazioa


Azken mendeetan, Europak, Ipar Amerikak eta Japoniak lideratu dute aurrerapen zientifikoa. Hala ere, gorabidean dauden herrialdeak garatu ahala, Zientziaren munduko oreka aldatuz joan da.

Oraindik, Europari eta Ipar Amerikari dagokie 2024ko munduko ekoizpenaren % 25 eta % 20 baino gehiago, hurrenez hurren, baina horien pisua gero eta txikiagoa da, munduko beste herrialde berrien mesedetan. Horrek ezin argiroago iradokitzen digu munduko ekoizpen zientifikoa gero eta banatuago dagoela.

Gorabidean dauden herrialdeen garrantzi gero eta handiagoaren adibidetzat, Txina herrialde nagusia bihurtu da 2020an ekoizpen zientifiko absolutuari dagokionez, 2024ean munduko ekoizpen zientifikoaren % 30 baino gehiagoren jabe delarik. Goranzko joera hori, neurri txikiagoan bada ere, bere horretan egiazta daiteke Indian, Latinoamerikan, Ekialde Ertainean edota Asiako hego-ekialdeko herrialdeetan, mendebaldeko herrialdeak galtzen ari diren protagonismoaren kaltetan (01. irudia).

Munduko ekoizpen zientifiko osoko partaidetza.

01. Irudia • Iturria: SciVal




Munduan ongien baloratuta dauden aldizkari zientifikoaren % 1ean argitaratutako kalitate goreneko ekoizpenari dagokionez (1. zentila), Txina herrialderik emankorrena bihurtu da 2024ean, munduko argitalpen hauen % 35ean parte hartu duelarik (02. Irudia).

Gainera, Txinaren hazkunde esponentzialaren aldean, Europan gertatu den geldialdia eta AEB eta Kanadaren azken hamarkadetako beherakada kontuan harturik, litekeena da ondorengo urteetan Txina gero eta nabaritasun zabalagoa izatea.

Munduko lehen mailako (% 1) ekoizpen zientifikoaren partaideza mundu mailan, Scimago Journal Rank (SJR) adierazleen arabera

02. Irudia • Iturria: SciVal



3.1.3. Ongizate psikologikoa Zientzia sektorean

Arlo zientifikoko osasun mentala gero eta garrantzi handiagoa duen gaia da, Zientziako ikertzaileek eta profesionalak beren ongizate psikologikoan eragina izan ditzaketen presio handiak jasaten baitituzte, hala nola, lehiakortasun handia, lan ziurgabetasuna, lanaldi luzeak, epe zorrotzak eta etengabeko beharra kalitate handiko emaitzak argitaratzeko.

Zientzian osasun mentala lehenestea ezinbestekoa da gizabanakoen ongizaterako, eta zientzialarien ekoizpen zientifikoa, sormena eta iraunkortasuna ez bermatzeko.

3.1.4. Dibulgazio zientifikoa

Dibulgazio zientifikoa eta zientziaren gizarteratzea ezinbestekoak dira ezagutza zientifikoa gizartearen behar eta interesekin lotzeko. Honek mesede egiten die bai gizabanakoei, eta baita hauek ordezkaten dituzten komunitate eta erakundeei ere,

- aurrerapen zientifikoen ulermena erraztuz eta haien garrantzia erakutsiz
- zientziaren eta zientzialarien konfiantza sustatzen informazio iturri fidagarri gisa
- ebidentzietan oinarritutako erabakiak hartzeko joera indartzen, indibidualki zein kolektiboki
- pentsamendu kritikoa areagotuz, desinformazioari eta aurreiritziei aurre egiten lagunduz eta herritartasun arduratsuagoa areagotuz
- interes eta bokazio zientifikoak piztea, berrikuntzarekin konprometitutako ikertzaile eta profesionalen belaunaldi berriak bermatzeko eta zientziaren ikuspegi aniztasuna aberasteko

Laburbilduz, zientziaren gizarteratzea oinarrizko zutabea da etorkizun ekitatiboagoa, jasangarriagoa eta ezagutzan oinarritutako gizarte bat eraikitzeko.

3.1.5. Ekoizpen zientifikoaren ebaluaketaren prozesua

Ekoizpen zientifikoaren ebaluazioak bilakaera nabarmena izan du azken urteotan.

Tradizionalki, prozesu hau adierazle eta metrika kuantitatiboetan oinarritu izan da, batez ere hauen irisgarritasunagatik eta hauek kalkulatzeko erraztasunagatik.

Hala ere, azken urteotan adierazle kuantitatibo horien menpekotasun eksklusiboari kritika zorrotza egin zaio, ez baitute behar bezala jasotzen ikerketen kalitatea eta lan bakoitzak izan duen benetako eragina.

Horren aurrean, DORA edo Leideneko Manifestua bezalako hainbat ekimenek ebaluazioetan ikuspegi holistikoagoak hartzera gonbidatzen dute, lan zientifikoaren alderdi kualitatiboagoak kontuan hartzen dituztenak.

3.1.6. Garapen Iraunkorrerako Helburuak (GIH)

Garapen Iraunkorreko Helburuak (GIH) Nazio Batuek 2030erako ezarritako helburu global multzo bat dira, pobrezia desagerrarazteko, planeta babesteko eta guztientzako oparotasuna eta ongizatea bermatzeko. Helburu horiek funtsezko gaiak jorratzen dituzte, hala nola osasuna, hezkuntza, genero berdintasuna, klima-ekintza eta ingurumen-iraunkortasuna, garapen ekonomiko, sozial eta ingurumen orekatua lortzeko.

Zientzia funtsezkoa da GIHak lortzeko, helburu hauek jasotzen dituzten erronkei aurre egiteko beharrezko irtenbideak lantzen baititu. Ikerketaren eta berrikuntza teknologikoak teknologia garbiago eta eraginkorragoak garatzeko, osasun sistemak hobetzeko, baliabide naturalen erabilera optimizatzeko eta klima-aldaketa arintzeko erantzunak ematen dizkigu.

Horrez gain, zientziak erabakiak hartzen laguntzen du, ebidentzietan oinarritutako politika publikoak sortzen eta praktika jasangarriak ezartzen lagunduz.



3.2. ZIENTZIA EUSKADIN

Zientziaren mundu mailako joera globalak aztertu ondoren, Euskadin jarriko dugu arreta, egungo egoera eta etorkizuneko beharrak estaltzeko dituen tresnak eta gaitasunak aztertzeko.

3.2.1. Politika zientifikoa

Euskadiko politika zientifikoa 2030 ZTBP izenaz ezagutzen den Euskadiko 2030erako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planaren arabera antolatuta dago, hauxe baita Eusko Jaurlaritzak I+G+b bultzatzeko garatzen dituen politika eta jarduera guztiak integratu eta koordinatzen dituen erreferentziazko esparrua..

2030 ZTBP beste plan batzuekin lotuta dago "Agenda Basque Country 2030" deritzon herrialde-estrategia globalaren barruan, baita Europako Horizon Europe esparru-programarekin ere, eta talentua du ardatz, hiru zutabe estrategikotan oinarrituta:

- Bikaintasun zientifikoa
- Lidergo teknologiko industrialia
- Berrikuntza irekia

3.2.2 Eragile nagusiak

Euskadik hainbat sektore ditu espektro zientifiko-teknologiko osoa barne hartzeko: oinarrizko ikerketatik hasi eta gizarte transferentziaraino garapen teknologiko-industrialaren bitartez.

- **Unibertsitateak.** Besteak beste, Euskadin oinarrizko zientzia eta zientzia aplikatua garatzea dute helburu, ezagutza zientifikoaren sorrera eta balorizazioa bultzatuz, gizarte-garapenerako elementu aktiboa izan dadin.
- **Basque Excellence Research Centers (BERC)** sareak bikaintasuneko euskal zientzia-sistema indartzen du unibertsitate-ingurunean.
- **Ikerketa Kooperatiboko Zentroak (CIC/IKZ)** oinarrizko eta aplikatutako ikerketa-jarduera garatzen dute, ikerketa estrategiko lehiakorra eta industria-sararako transferentzia sustatuz.
- Hiru **Ikerketa Sanitarioko Institutuak (ISI)** Euskadiko osasun arloko ikerketaren funtsezko osagaiak dira.
- **Zentro teknologikoak** eragile garrantzitsuak dira zientzia aplikatuaren sorkuntzarako enpresekiko ekintza estrategikoen bitartez.

3.2.3. Errendimendu azterketa

Euskadi nazioarteko erreferente zientifikoa izateko, beharrezkoa da kalitatea eta bikaintasuna ezaugarri dituen zientzia-sistema garatzea.

Historikoki, Euskal Zientzia Sistemak ikuspegi teknologikoa izan badu ere, azken hamarkadetan ahalegin handia egin da oinarritzko ikerketa sustatzeko, gizartearen onurako emaitzak lortzearren eta Europa mailan bultzatutako estrategiarekin bat eginez.


Finantzaketa

Ikerketaren finantzaketak garrantzi nabarmena du I+G arloko politiketan, izan ere, denboran iraunkorra den inbertsio sendoa izatea zientzia eta teknologia-sistemaren lehiakortasunaren oinarrietako bat da.

Euskadin, I+G arloko inbertsioak oso joera positiboa izan du azken hamarkadetan, 2023an 2.000 milioi euroko inbertsioa gaindituz (03. Irudia): Euskadiko BPGaren % 2a baino gehiago.

I+G arloko inbertsioa Euskadin azken hamarkadetan, milioi eurotan.

03. Irudia • Iturria: Eustat




Pertsonak

Zientziaren aldeko apustu honi esker, pertsona gehiago sartu ahal izan dira Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarean (ZTBES), I+Gan diharduen langile-kopurua handituz, hauexek baitira gure lurraldean garapen zientifikoa bultzatzen dutenak..

Etengabeko ahalegin horren ondorioz, egun 25.000 pertsona inguruk dihardute ikerketan Euskadin, osorik nahiz zatika,, biztanleria aktiboaren % 2a baino gehiagok. Kopuru horrek Euskadik bere garapen zientifiko eta teknologikoarekiko duen konpromisoa islatzen du, baita I+G+b sustatzeko politikek duten eragina ere.

Euskadin ikerketan guztiz nahiz zatika diharduten persona kopurua.

04. Irudia • Iturria: Eustat






Ekoizpen zientifikoa

Euskadin ikerketa arloko langile-kopuruan izandako igoerak EAEn sortutako ezagutza berriaren gorakada ere ekarri du, nazioarteko indexatutako datu baseetan argitaratutako dokumentu zientifikoaren kopuruan neurtuta (05. Irudia).

Euskadin argitaratutako dokumentu zientifikoaren kopurua.

05. Irudia • Iturria: Scopus




Gainera, munduko erreferentziazko aldizkarietan egindako argitalpenen portzentajea aztertuz gero, argi dago kopuruak gora egin duela, bereziki 2007etik Aurrera (06. Irudia).

Horrek iradokitzen digu Euskadin argitaratutako lanen kalitatea hobetu dela azken hamarkadan, nazioarteko ospe handiko aldizkarietan izandako argitalpenen ehunekoak gora egin duen heinean.

Euskadik Scimago Journal Rank-ek (SJR) ongien baloratutako munduko aldizkarien % 10ean duen ekoizpen zientifikoa.


06. Irudia • Iturria: SciVal





4. BARNE ANALISIA





4.1. IKERBASQUE URTEETAN ZEHAR



+15.000
argitalpen
zientifiko

+400
ikerlari

9
sortutako
Ikerketa
zentroak

+40
ERC
grantees

+35
Spin-offs

+350M€
Funts
konpetitibo

4.2. PERTSONAK


Ikerbasqueren sorreratik, ikerketa arloko talentua erakartzea izan da fundazioaren lanaren ardatz nagusia eta gure nortasunaren bereizgarria.

Gogotik lan egin dugu adimen zientifikorik onenak Euskadira erakartzeko, eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko (ZTBES) edozein ikerketa-zentrotan (euskal unibertsitateetako sailak, ospitaleetako ikerketa biosanitarioko zentroak, BERC zentroak, CIC/IKZ zentroak eta zentro teknologikoak barne) lan egiten jarraitzeko aukera izan dezatela bermatzen laguntzeko.

Horren harira, Ikerbasqueko ikertzaile-kopurua etengabe gehitu da erakundea eratu zenetik, 2024an 400 ikertzaile baino gehiago bilduz (07. Irudia), hiru kategoriatan banatuta: Research Professors (dagozkien ikerketa-arloetako liderrak diren ikertzaile seniorrak), Research Associate Professors (ikertzaile finkatuak) eta Research Fellows (etorkizun handiko zientzialari gazteak).

Ikerbasqueko ikertzaile-kopurua, kategorien arabera.

07. Irudia • Iturria: Ikerbasque




Ikerketan diharduten langileak sexuen arabera banatuz gero, parekotasuna oraindik urrun dagoen arren, Ikerbasquek arlo horretan egindako etengabeko ahaleginari esker diferentzia hau murrizten joan da urteetan zehar.

Gure Berdintasun Plana ardatz izanda, hainbat ekimenen ondorioz, 2024an Ikerbasqueko ikertzaileen langileen % 30 baino gehiago emakumeak izatea lortu dugu (08. Irudia), berdintasunarekin, aniztasunarekin eta esparru zientifikoan inklusioarekin dugun konpromisoa dela eta.

Hala ere, jakitun gara oraindik bide luzea dagoela parekotasuna lortzeko, eta etorkizunean komunitate orekatuagoaren aldeko neurriak sustatzen jarraitzen dugu.

Ikerbasque ikerlarien emakumezkoen ehunekoa, kategoria bakoitzean.

08. Irudia • Iturria: Ikerbasque




Ikerbasqueko ikertzaileen banaketa sektore bakoitzeko ekoizpen zientifikoarekin lerrokatuta dago. Horren ondorioz, unibertsitate eta BERC sektoreak dira Ikerbasqueko ikertzaile gehien biltzen dituztenak, hauek Euskal Zientzia Sistemaren duten garrantzia dela eta (09. Irudia).



Ikerbasqueko ikerketa arloko langileen banaketa, sektoreen arabera.

09. Irudia • Iturria: Ikerbasque




4.3. EKOIZPEN ZIENTIFIKOA

Sortu zenez geroztik, Ikerbasquen ekoizpen zientifikoa gehituz joan da urtez urte, 2023an 1.500 argitalpen zientifiko baino gehiago egin zituelarik .

Ikerbasquek argitaratutako dokumentu zientifikoaren kopurua.

10. Irudia • Iturria: Scopus




Gainera, ekoizpenarekin batera, kalitatea ere areagotu da (11. Irudia), munduko aldizkari zientifiko onenen % 10ean egindako argitalpenen ehunekoetan neurtuta (lehen dezila, D1).

Honela, Ikerbasque kalitatezko ekoizpen zientifikoan erreferente gisa kokatu da Euskadin.

Ikerbasquek eta Euskadik munduan ongien baloratutako aldizkariaren % 10ean argitaratutako ekoizpen zientifikoaren ehunekoa, Scimago Journal Rank-en (SJR) arabera.

11. Irudia • Iturria: SciVal



4.4. 2021-2024 PE-AREN AZTERKETA

Ikerbasqueren 2021-2024ko Plan Estrategikoan, 2024ean lortu beharreko 12 erronka zehaztu ziren.

Hurrengo irudian ikusi daitekeenez, Ikerbasqueri zuzenean lotutako 8 helburuetatik zazpi gainditu dira, hau da, 85% baino gehiago.


2024rako proposatutako erronkak

Euskadi	01.	Euskadik urtean 9.000 argitalpen zientifiko lortzea	
	02.	Ekoizpen zientifikoaren % 60 nazioarteko lankidetzaren bidez egitea	
	03.	Euskadiko argitalpenen herena inpaktu handieneko aldizkari zientifiko top-10ean (D1) egitea	
BERC	04.	BERC zentroek 1.700 artikuluko zientifiko argitaratzea, Euskadiko artikuluko guztien % 15a	
Ikerbasque	05.	Ikerbasquek 2021-2024 epealdian beste 100 ikertzaile gehitzea, guztira 370 ikertzaile bildu arte	
	06.	Ikerbasquek 2021-2024 epealdian 30 basque fellow gehitzea	
	07.	Ikerbasquek 2024an gehitutako ikertzaileen % 40 emakumeak izatea	
	08.	Ikerbasque ikertzaileek 2024an 1.600 artikuluko zientifiko baino gehiago argitaratzea	
	09.	Ikerbasqueren 2024ko argitalpenen % 40 inpaktu handieneko aldizkari zientifiko top-10ean (D1) egitea	
	10.	Ikerbasquek 2021-2024 epealdian 150 milioi euroko itzulkina lortzea	
	11.	Ikerbasqueko ikertzaileek 2021-2024 epealdian 10 ERC lortzea	
	12.	Ikerbasqueko ikertzaileek 2.000 pertsona lideratzea beren ikerketa-taldeetan	





5. AMIA ANALISIA



AMIA MATRIZEA

Gogoeta estrategikoa lantzeko, Ikerbasquek barne-azterketa eta kanpo-azterketa egin ditu erakundearen jarraipenerako tresnen laguntzaz (errendimenduari buruzko adierazleak, gogobetetze-inkestak, elkarrizketa pertsonalak, parte-hartze saioak), eta horiexen emaitza da ondorengo AMIA analisia:

INDARGUNEAK

- Ikerbasquek duen laguntza instituzionala
- Harreman ona Euskal Zientzia Sistemako eragile guztiekin
- Ikerbasqueren kanpo aitortza eta prestigioa
- Ikerbasque komunitatekoa izatearen harrotasuna
- Emaitza zientifiko bikainak eta inbertsioaren etekin ekonomiko positiboa
- Ikerbasque ikertzaileen egonkortasun profesionala
- Malgutasuna eta arintasuna Ikerbasqueren kudeaketan
- Esperientzia talentua erakartzeko eta ebaluatzeko prozesuetan
- Ikerbasqueren laguntza belaunaldi berriei

AUKERAK

- Euskadiren erakargarritasun gero eta handiagoa zientzian
- Emakumeak lidergo zientifikoko postuetan sartzea sustatzea
- Eusko Jaurlaritzak ikerketarekin duen konpromisoa
- Euskal Zientzia Sistemari proiektu handiko ikertzaile gazteak sartzeko beharra
- Hainbat ikerketa-arlotako ikerketa-komunitatea
- Finantzaketa iturri berriak
- Euskadiko azpiegitura zientifikoak hobetzea
- Gizartean zientziarekiko interesa gero eta handiagoa, harrera sozial positiboa
- Ezagutzaren transferentzia

AHULEZIAK


- Genero-arraila ikerbasque komunitatean
- Ikerbasqueri buruz euskal gizartearen ezagutza mugatua
- Gardentasuna ebaluazioetan
- Finantzaketa oso gutxi dibertsifikatua
- Lerrokatze falta erakunde hartzaileekin
- Baliabide mugatuak profil zehatzak erakartzeko
- Nazioarteko ikusgarritasuna lortzeko zailtasuna
- Oso orientazio akademikoa
- Ikerketa-arloen arteko desoreka Ikerbasqueko ikertzaileen artean

MEHATXUAK

- Epe luzerako finantza-iraunkortasuna
- Talentua erakartzeko nazioarteko lehiaketa
- Ikerketa-zentro batzuetan ikertzaileentzako espazio fisiko falta
- Burokrazia eta araudia areagotzea
- Euskadiko ikerketa-zentroen arteko posible lehia
- Finantzaketa publikoarekiko menpekotasuna
- Ikerbasque komunitatearen hazkundera dela eta, pertsonen arteko arazoak izateko aukerak gero eta handiagoak dira



6. 2028RAKO 10 ERRONKA




2028RAKO 10 ERRONKA

Egungo joeren proiektzioa eginez eta ikerketa zientifikoaren aldeko apustuari eutsiz, Ikerbasque fundazioak gure 2028rako lehentasunak eta aspirazioak jasotzen dituzten 10 erronka definitu ditu hurrengo urteetarako.


Erronka anbiziotsu eta zorrotzak dira: Euskadin ikerketa sustatzea, interes taldeekin dugun harremana sendotzea eta gure gizartean eragin positiboa izatea.



Eremuak	Erronkak	
Talentu zientifikoa sustatzea eta atxikitzea	1	Ikerbasque 2028an 450 ikertzaileetara iritsiko da, 4 urtetan 80 ikertzaile berriekin , eta horietatik gutxienez %40a emakumeak izanik.
	2	Ikerbasque fundazioak 30 basque fellow berri ditu 2025-2028 aldian.
	3	2028rako, Ikerbasqueko ikerlariak diharduten zentroen % 100ek diagnostiko psikosozial baten ondoriozko ongizate psikologikoko programa jarri dute abian.
	4	Ikerbasque fundazioko ikertzaileek 2.000 pertsona lideratzea beren ikerketa-taldeetan 2028ean.
Euskal Zientzia Sistema sendotzea	5	2025-2028 epealdian, Ikerbasquek 2.800 artikulua baino gehiago argitaratzen ditu eragin handiko aldizkari zientifikoetan (D1) , non BERC eta CIC zentroek egindako ekarpena heren bat da gutxienez.
	6	TRL-4 gorako 15 proiektu estrategiko baino gehiago garatzen dira IKUR esparru estrategikoan 4 urteetan.
	7	Ikerbasque ikertzaileek 10 ERC edo EIC lortzen dituzte 2025-2028 epealdian.
Zientziak gizartean duen eragina areagotzea	8	2028rako, BERC eta CIC zentroen %100ek zientzia gizarteraketarako estrategia ezarri dute Ikerbasquerekin koordinatuta.
	9	Ikerbasque fundazioak 200 milioi euroko ekarpena lortu du ikerketa proiektuetan 2025-2028 epealdian.
	10	2028an Ikerbasque ikertzaileek garatutako ikerketa jardueratik sortutako 50 enpresa izango dira.



7. 2025-2028
PLAN ESTRATEGIKOA



7.1. MISIOA, IKUSPEGIA ETA BALIOAK

Ikerbasque Eusko Jaurlaritzak sustatutako erakundea da, Euskadin Zientzia eta berrikuntza indartzea helburu duena, eta horretarako, ikertzaileak erakarri eta finkatzeko eta Zientziaren Euskal Sistema dinamizatzeko programak garatzen ditu unibertsitate zein ikerketa-zentroyen lankidetzaz eta bikaintasunaren aldeko konpromisoari eutsiz



Hauexek dira Ikerbasquek 2028rako lortu nahi dituen asmoak:

- talentu zientifikoa erakarri eta finkatzeko nazioarteko erreferentea izatea
- bikaintasun zientifikoko komunitate dinamiko eta produktiboa izatea
- Euskal Zientzia Sistemaren nodo dinamizatzailea izatea
- Euskadiko unibertsitate eta erakunde zientifikoen aliatu estrategikoa izatea
- transferentziaren, eragin sozialaren, berrikuntzaren eta ezagutzaren gizarte-hedapenaren bultzatzailea
- herritarrek aitortua



Eraginkortasuna. Zehaztuta dauzkagun helburuak lortzeko konpromisoa hartu dugu, eta horretarako, modu egokian erabiliko ditugu eskura ditugun baliabideak.

Gardentasuna. Gure intereseko taldeek gure estrategiaren hedapena (zer egiten dugun), erabiltzen ditugun bitartekoak eta lortzen ditugun emaitzak ezagutzeko aukera izan behar dute.

Kontsiderazioa. Errespetuz eta arretaz tratatzen ditugu gurekin harremanetan jartzen diren pertsona eta erakunde guztiak.

Ekitate. Pertsona bakoitzaren meritua eta gaitasuna baloratzen ditugu, eta erakundearen jarduera guztietan aukera zein baldintza berdintasuna bermatzeko lan egiten dugu.


Berrikuntza. Gure lan-giroak sormena eta berrikuntzen planteamendua sustatzen ditu prozesuak hobetu eta arintzeko.

Lankidetz. Hedatutako erakunde gara, intereseko taldeekin lankidetz estuan jarduen eta taldeka lan egiten duena.

7.2. ARRAKASTAREN GILTZARRIAK

Landu ditugun kanpo eta barne azterketei esker, erakundearen funtzionamendu egokia eta zehaztutako helburuen lorpena baldintzatzen dituzten zenbait faktore kritiko identifikatu ahal izan ditugu.

Hauexek dira helburu horiek lortzeko giltzarriko faktoreak:



Administrazio Publikoaren eta unibertsitate zein ikerketa-zentroen arteko lankidetzaren lkerbasqueren politikak ezartzeko.

Bikaintasuna ezaugarri duen ospeari esker, konfiantzazko lotura sor daiteke intereseko taldeekin, batez ere komunitate zientifikoarekin eta euskal gizartearekin.

Estrategia hedatzeko eta hartutako konpromisoak betetzeko gaitasuna.

Ikerbasquek garatutako programen erakargarritasuna eta Euskadiko erakunde zientifikoaren beharretara egokitzea.



7.3. ILDO ESTRATEGIKOAK

Ikerbasque fundazioaren helburu nagusia Euskal Zientzia Sistema (EZS) indartzea da.

Horretarako, sei helburu estrategiko zehaztu dira hiru jarduera-eremutan:

Jarduera eremuak	Ildo Estrategikoak	
Talentu zientifikoa sustatzea eta atxikitzea	IK.1	Bai nazioarteko zein tokiko talentu zientifikoa erakartzea
	IK.2	Talentu zientifikoa garatzea eta atxikitzea
Euskal Zientzia Sistema sendotzea	IK.3	Euskadik dituen gaitasun eta azpiegitura zientifikoak garatzea proiektu eta programa estrategikoen bidez
	IK.4	BERC eta CIC bikaintasuneko ikerketa zentroak indartzea
Zientziak gizartean duen eragina areagotzea	IK.5	Zientzia gizartean sustatzea
	IK.6	Berrikuntza eta ezagutzaren transferentzia bultzatzea

IK 1

NAZIOARTEKO ETA TOKIKO TALENTU ZIENTIFIKOA ERAKARTZEA

Ikerbasquek dituen talentua erakartzeko programak fundazioaren bereizgarria izan dira erakundea abian jarri zenetik.

Ikerbasqueko ikertzaileek funtsezko zeregina dute Euskal Zientzia sustatzeko, ezagutza sortzeko iturri esanguratsuak bilakatuz, eta Euskal Zientzia sistemari ez ezik, oro har, gizarteari ere mesede zuzena ematen dioten kanpoko baliabideak erakarriz.

JARDUERA-ILDOAK

Maila goreneko ikerlari iraunkorrak erakartzea Euskadiko erakunde zientifikoetara, Research Professor edo Research Associate Professor gisa.

Etorkizuneko lider zientifikoak sartzeari Euskadiko erakunde zientifikoetan Research Fellow gisa.

Euskadin trebatutako talentu zientifiko gaztearen itzulera sustatzea.

Euskal Zientzia Sistemaren beharrezkoak diren profil iraunkorrak erakartzeko deialdi espezifikoak abian jartzea.

Etorkizun handiko langile zientifikoak sartzeari Euskadiko erakunde zientifikoetan, ERC edo EIC finantzaketa lehiakor garrantzitsua duten ikertzaileak erakarriz.

IK 2

TALENTU ZIENTIFIKOA GARATZEA ETA ATXIKITZEA

Ikertzaile-karreraren jarraipena funtsezkoa da Euskadin talentu zientifikoa finkatzeko eta talentua erakartzea xede duten politikak biribiltzeko, finkatutako ikertzaileak egonkortuz.

Hau beharrezkoa da I+G ekosistema indartzeko eta epe luzerako garapen iraunkorra bermatzeko.

JARDUERA-ILDOAK

Ikerbasque Research Fellow-en ikerketa-karrera finkatzea Research Associate Professor gisa.

Ramón y Cajal eta Miguel Servet programetan dauden EZSeko ikertzaileei ikerketa-karrera finkatzeko aukera ematea.

Ikertzaile gazteen garapen zientifikorako ingurune egokia sortzea.

Gure komunitatearen ongizate psikosoziala zaintzea.

Ikerbasque ikertzaileak Euskadiko erakunde zientifikoetan erabat integratzen laguntzea.

Ikerbasque ikertzaileei babesa eta laguntza eskaintzea.

Ikerbasque ikertzaileentzako karrera-plan lehiakorra garatzea prestakuntza, jarraipen eta ebaluazio prozesu argiekin.

Deialdi guztietan eta lidergo postuetan emakumeen sarrera sustatzea.

Ikerbasquen aukera-berdintasuna sustatzea, Berdintasun Plana garatuz.

Ikertzaileei zuzendutako HRS4R europar politikaren hedapenaosatzea eta Ikerbasque ikerlarien harrera zentroetan bultzatzea.

IK 3

EUSKAL HERRIKO GAITASUN ETA AZPIEGITURA ZIENTIFIKOAK GARATZEA PROGRAMA ETA PROIEKTU ESTRATEGIKOEN BIDEZ

Euskal Zientzia Sistemaren erdigunean duen posizioari esker, Ikerbasquek politika zientifikoko ekimenak zabal ditzake interes estrategikoko esparruetan sistemaren errendimendu globala hobetu ahal izateko.

Horri esker, ekintza-eskala handiagoa behar duten arlo estrategikoak identifikatu eta jorratzeko aukera ematen du, erakundeen arteko intereseko proiektuak garatuz eta Euskadiko lehiakortasun zientifiko eta teknologikoa sustatuz.

JARDUERA-ILDOAK

Lankidetzeta bidezko ikerketarako IKUR estrategia zabaltzea funtsezko arlo zientifikoetan.

BasQ ekimena sustatzea Euskadin bikaintasun kuantikoaren polo bat garatzeko.

Ikerketarako gune eta laborategi berriak bultzatzea (BIHAR).

Azpiegitura berezi kritikoak eta ekipamendu zientifiko berriak sustatzea LINKER programaren bidez.

Zientzia eta Teknologiaren Euskal Sareko eragileei telekomunikazio-azpiegiturak eta superkonputazio zerbitzuak ematea, i2Basque sarearen bitartez.

IK 4

BERC ETA CIC BIKAINASUNEKO IKERKETA ZENTROAK SENDOTZEA

BERC eta CIC bikaintasun-zentroak kalitatezko ezagutza berria sortzeagatik nabarmentzen dira. Zentro hauek berrikuntza sustatzen dute eta talentu zientifikoa erakartzen laguntzen dute, eta horrek lehiakortasuna hobetzen du sektore estrategikoetan.

JARDUERA-ILDOAK

BERC eta CIC bikaintasun zentroen garapena, nazioartekotzea eta hazkunde iraunkorra sustatzea.

Euskal Zientzia Sistema indartzea BERC eta CIC sarearen kudeaketan, koordinazioan eta ebaluazioan lagunduz.

Euskadiko bikaintasun-zentroen arteko koordinazioa, gaitasunak eta sinergiak hobetzea.

BERC eta CIC zentroen kudeaketan politika eta protokolo komunak hartzea erraztea eta sustatzea.

IK 5

ZIENTZIA GIZARTEAN SUSTATZEA

Zientzia eta dibulgazio zientifikoak sustatzea ezinbestekoa da gizartearen aurrerapenerako.

Ezagutza herritarrei hurbilduz, pentsamendu kritikoa sustatzen da eta erabaki informatuak hartzea errazten du.

Gainera, bokazio zientifikoak pizten ditu eta ikerkuntzarekiko konfiantza indartzen du, etorkizuneko erronketarako prestatuta dagoen gizarte berritzaileago bati lagunduz.

JARDUERA-ILDOAK

Zientzia gizartean zabaltzeko ekimenak abiaraztea.

Euskadiko jarduera zientifikoaren monitorizazioa, jarraipena eta komunikazioa.

Ikerketaren emaitzen zabalkundea eta Ikerbasqueko ikertzaileen eragina sustatzea.

Zientiaren gizarte-hedapenerako ekimenak sustatzea eta Ikerbasqueren marka-irudia hobetzea, zientzia bikainaren aterki gisa Euskadin.

Ikerbasque komunitatean jarduera zientifikoaren komunikazioaren koordinazioa.

Euskal sare zientifiko-teknologikoaren gaitasunak biltzen dituen science.eus web atariaren funtzionalitateak zabaltzea.

IK 6

BERRIKUNTZA ETA EZAGUTZAREN TRANSFERENTZIA BULTZATZEA

Berrikuntza eta ezagutzaren transferentzia sustatzea funtsezkoa da garapen zientifikoa gizartearentzat eta ekonomiarentzat onura konkretu bihurtzeko.

Berrikuntzak lehiakortasuna bultzatzen du, kalitatezko enplegua sortzen du eta enpresei ingurune aldakor batera egokitzeko aukera ematen die.

Bere aldetik, ezagutzaren transferentziak sektore produktiboetan aurrerapen zientifikoak aplikatzea errazten du, teknologia, osasuna, jasangarritasuna eta bizi-kalitatea hobetuz. Horretaz gain, unibertsitate, ikerketa zentro eta enpresen arteko lankidetzak indartzen du, I+G ekosistema dinamiko eta eraginkorragoa sustatuz.

JARDUERA-ILDOAK

Teknologia, enpresa, azpiegitura zientifiko handien kudeaketa arloetako zerbitzu edo deialdi berriak aztertzea.

Ikerbasque komunitatearen ekintzailatza eta ikerketa jardueratik eratorritako enpresa berriak sortzea sustatzea.

IKUR, LINKER eta BasQ bezalako eragin-ekimenak kudeatu eta bultzatzea.

Oinarrizko zientziatik balio-kateen sorkuntzari laguntzea, goi-mailako TRL-ekin lotzeko, ekimen bakoitzaren aplikagarritasuna identifikatuz.

Ikerketarako eta berrikuntzarako funtsak erakartzea Euskadira, hala nola ERC edo EIC.

7.4. 2030 ZTBP-AREKIN LERROKATZEA

Ikerbasqueren estrategia eta jarduera estu-estu lerrokatuta daude 2030 ZTBP deritzon 2030erako Euskadiko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planarekin.
















Ikertzen eta berritzen diharduten pertsonen talentua, Ikerbasqueren bereizgarrietako bat, 2030 ZTBParent ardatz nagusia da. Horregatik, Ikerbasquek talentua erakarri, aberriratu eta atxikitzeko abian duen lehen ildo estrategikoak bultzada zuzena ematen dio Planaren osagai nagusiar.

Aldi berean, 2030 ZTBParent osagai nagusiak hiru zutabe ditu. Horietan, Ikerbasque modu aktiboan parte hartzen ari da Bikaintasun Zientifikoari dagokion I. Zutabearen garapenean, oinarri zientifikoa hobetzeko eta, bikaintasunezko ikerketaren bitartez nahiz Euskadiren gaitasun teknikoak eta zientifikoak areagotuz, ezagutzaren sorkuntza bultzatzeko.

Eragiketari lotuago dagoen esparruan, 2030 ZTBParent hiru zutabeak eta osagai nagusia lau helburu operatiboren arabera egituratu dira. Helburu operatibo horietan, Ikerbasquek eginkizun garrantzitsua bete dezake lehenengoan, Euskal Zientzia Sistemaren emaitzak maximizatuz; hirugarrenean, atzerriko talentua eta funtsak erakarriz I+G+b arloko euskal sistemaren nazioartekotzea babesteko; eta laugarrenean, ikerketa arloko talentuaren sustapena indartuz, bereziki emakumeen artean.

Jarraian ikus daiteke, Ikerbasqueren jarduerak eta strategiak 2030 ZTBParent zehaztutako zutabeetan eta helburu operatiboetan eragin dezaketenen inpaktuaren laburpena:

-  Eragin zuzena
-  Zeharkako eragina
-  Eragin mugatua

	I Zutabea Bikaintasun zientifikoa	II Zutabea Lidergo tek. – ind.	III Zutabea Berrikuntza irekia	Talentua
1. HELBURU OPERATIBOA Emaitzekiko Orientazioa				
2. HELBURU OPERATIBOA I+G eta empresa berrikuntza				
3. HELBURU OPERATIBOA Nazioarteratzea				
4. HELBURU OPERATIBOA Talentua				

7.5. GIH-EKIN LERROKATZEA

Ikerbasqueren estrategiak eragin handia du Garapen Iraunkorreko Helburu (GIH) gehienetan.

Erakunde gisa egiten dugun jardueraz gain, Ikerbasque komunitateak ezagutza zabaltzeko lan egiten du esparru zientifiko guztietan, hezkuntza, berdintasuna, berrikuntza eta klima-ekintza bezalako gai nagusietan aurrerapena sustatuz .

Ondorioz, Ikerbasque 17 helburu estrategikoetako 14etan aurrera ateratzen laguntzen ari da, gizartean, ingurumenean eta garapen global iraunkorrean eragin positiboa sortuz.



3 SALUD Y BIENESTAR
Egun, Ikerbasque komunitatearen % 25ek osasunaren eta bizitzaren zientzietan garatzen du bere ikerketalana.



11 CIUDADES Y COMUNIDADES SOSTENIBLES
Hiri eta komunitate jasangarriak: Unibertsitateetan eta BERC zentroetan dauden Ikerbasqueko ikertzaile batzuek esparru honetan lan egiten dute.



4 EDUCACIÓN DE CALIDAD
Ikerbasque komunitatearen parte-hartzea bultzatzen dugu etorkizuneko ikertzaileen prestakuntzan, kalitatezko hezkuntza sustatuz



12 PRODUCCIÓN Y CONSUMO RESPONSABLES
Eskura ditugun baliabideen erabilera arduratsua eta eraginkorra egiten dugu.



5 IGUALDAD DE GÉNERO
Genero-berdintasuna sustatzen dugu gure deialdietan, aukera-berdintasuna bermatuz.



13 ACCIÓN POR EL CLIMA
Ikerbasquek ingurumen-inpaktua minimizatuz garatzen du bere jarduera.



7 ENERGÍA ASEQUIBLE Y NO CONTAMINANTE
Ikerbasque ikertzaileetako batzuek energia-eraginkortasunaren eta energia ez-kutsatzailearen inguruan garatzen dute beren ikerketalana.



14 VIDA SUBMARINA
PIEko ikertzaileek eta unibertsitateetako zein ZZTTetako ikertzaile batzuek itsaspeko bizitza aztertzen dihardute.



8 TRABAJO DECENTE Y CRECIMIENTO ECONÓMICO
Lan-baldintza duinekin konprometituta gaude.



15 VIDA DE ECOSISTEMAS TERRESTRES
Ikerbasque komunitateko zenbait kidek, bereziki BC3 zentroan eta unibertsitateetan, lehorreko ekosistemen bizitza eta birgaitzea ikertzen dihardute.



9 INDUSTRIA, INNOVACIÓN E INFRAESTRUCTURA
Azpiegituren garapena eta industriarako transferentzia babesten ditugu.



16 PAZ, JUSTICIA E INSTITUCIONES SÓLIDAS
Bakea eta justiziar buruz egindako ikerketaz gain, egonkortasun instituzionalari eusten laguntzen dugu profesionaltasunaren eta gardentasunaren bitartez.



10 REDUCCIÓN DE LAS DESIGUALDADES
Aukera eta baldintzen berdintasuna sustatzen dugu esparru guztietan.




17 ALIANZAS PARA LOGRAR LOS OBJETIVOS
Dagokigun zeregina garatzen dugu, gure intereseko taldeekiko eta elkarren mesedeko aliantza onuragarrien bitartez.


7.6. PROZESUEN MAPA

Hasiera-hasieratik, Ikerbasquek prozesuen araberako kudeaketa-eredua erabili du; lehenengo, EFQMan oinarrituta, eta oraintsuago, Kudeaketa Aurreratuko Eredua (KAE) oinarritzat hartuta, erakundearen Misioari eta Ikuspegiari jarraiki eta plan honen Estrategiari eta helburuen kudeaketari utsiz.

Ikerbasque fundazioaren 2025-2028 epealdirako estrategia eta helburuak alderdi estrategikoak, gakoak eta euskarriak onartzen dituzten prozesuetan hedatzen dira.

Ikerbasque prozesuetako mapa urtero berrikusten da. Gaur egun Ikerbasquen definitutako prozesuak hauek dira:







8. AURREKONTUA



AURREKONTUA

Ikerbasqueren aurrekontua estu-estu lotuta dago ikerketa arloan aurreikusitako langileen hazkundearekin, eta hiru finantzaketa-iturri nagusi ditu egun:

- Eusko Jaurlaritza, Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza sailaren bitartez.
- Europar Batasuna, hainbat deialdi lehiakorretan ezarritako finantzaketaren bitartez.
- EZSeko erakunde zientifikoak berak, Ikerbasqueko ikertzaileen sarrera kofinantzatzen dutenak.

Plan Estrategiko honetan jasotako jardueraildoak garatzeko, gastu eta inbertsioen aurrekontu hau kalkulatu da 2025-2028 epealdirako:



JARDUERA EREMUA	2025	2026	2027	2028	EPEALDIAN GUZTIRA
Talentu zientifikoaren erakarpeta eta garapena	15.600.000	16.450.000	17.300.000	18.200.000	67.550.000
Euskal Zientzia Sistema sendotzea	9.100.000	9.800.000	10.500.000	11.210.000	40.610.000
Proiektu estrategikoen garapena	24.200.000	24.200.000	24.200.000	24.200.000	96.800.000
Funtzionamendu gastuak	1.250.000	1.250.000	1.270.000	1.270.000	5.040.000
URTEAN GUZTIRA	50.150.000	51.700.000	53.270.000	54.880.000	210.000.000

ikerbasque

Basque Foundation for Science

Plaza Euskadi 5, 48009 Bilbao
Tel. +34 944 05 26 60
info@ikerbasque.net

www.ikerbasque.net